


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

HERIZ PASEALEKUA 2



Antonio Zaldúa, 1947.

Deskribapena

Matia kalearekin bat egiten duen lekuan kantoi zorrotza egiten duen eraikina; aldatuxea du proiektuak jasotzen zuen profila. Beheko solairua eta solairuartea, goiko bost solairu eta mantsarda eran egindako jasodura bat dauzka, ertzean izan ezik, hori biribilgunearen jarraipen gisa altxatu zuten eta. Horixe da konposizioaren motibo nagusia, era arrazionalistako ertza, gainazal kurbo jarraituak eta leiho handiak dauzkana bera. Guztia halako enfasi maila batez egin da inpostetako eta leiho-barrenetako erliebeetan, kurbako marrazkia nabarmenaraztearren. Biribilgunea alde batera utzirik, beste fatxadetan begiratoki errektangularrak daude, txandakatze errepikatu batez.

D mailako babes erregimen espezifikoak

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: beheko solairuko aldaketak eta mantsarda erako jasodura.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.